

OGOÑO

POR JESUS DE ALTUNA

Mendigoxale oni'be atsegingarri jaku udan, beste kioldar (deportista) guztieriletz itxasbazterra, ez ondartzalialez egun guztia edo geiena ondar-artian igaroteko, menditik ibiltaldi on bat egin ondoren bustaldi (baño) eder bat artutzeko. beren edozein ondartzta edo itxasbazterrako arkaitz bitarte baten baño. Ze egokia izatendan mandi'ko ibilkeran izardi pizka bat atera ba'da, usain txarrak kentzeko «plausta» gure itxas garbiko uretan sartutzea!

Orregaitik, itxas-aldeko mendietatik udan ibillitia, atsegingarri jaku, esan dogu nagaitik eta mendi txikerrak izanagaitik ba'dabezalako euren lepoan edo inguruetan ikusgarriak eta ikuskizunak. Eta Jakiña, udan ex-bada, mendi andiagotarra jaitia naiago dogulako.

Orretariko aldozkunak edo antzekuak gure buruari doguzala zuzendu gintzazan iralla'ren l'gan, Elantxobe ingurura, beste mendigoxale trebe bat era lerro-ok idatitien dauzana, beren tarrantan, Ogoño guztia ikuskatutzeko (explorar) goguz... lortu ez-bagenduban'be gure guraria mendi-orren loitasuna gaitik eta bai eurragaitik-be.

Elantxobe ganan, Ibarrangelu'ren zati bat dala uste dot bera, gure tramankulu utxi ta artu genduban exkerrerantz. iru edo lau basatxe'ren ondotik doian burdi-bidea, amar-bat minutu barru erduteko Elantxobe'ko ildegi ondora. Ildegi-ori ezkerrerantz uzi ta, jarraitutzen dogu eskorna-aldeko burdi-bideik, beti gure aurrez-aurre Ogoño dogula, laugarren basatxea igaro-arte, eta emen pizkabat ezkerrerantz egiñaz laster minutu asko baño len erduko gara Leunbe mendilepo'ra (collado), eta zelai-ori mendigana (cima)'ren ezkerre-aldean, Sarkaldean dagonletz, jarraitu biarra izan genduban bideziurretik pizkabat ipar-aldera gero txarazka artetik igotzeko zuzen ipar-aldeko gallurrera, emen dagolako kutxa. Guztiz ia ordu bat ni-lez errenka (cojeando) dabillenak. Beste bide-bat be ba'du Laga'ko ondartzatik baño, ez-dot ezautzen.

Ogoño lurmuztur (cabo) guztia dago txarazkaz (arbustos) eztalduta, da oridala'ta gaitz-da bertan inorantza ibillitea, odoltuta ikusi naiztabenak esku, arpegi

ta abar. Ori-ta guztibe baña, ba'dau ikusgarririk lurmuztur-oneik, gure ustez beren gallurrean: zati bi-tan dago berau Sorkalde'tik Sarkaldera (Este a Oeste) aitzo (cuchillo) andi, ikeragarribatek ebagitalez amabost edo ogei neurkin (metro) bat zakon: alderdi bietatik sartu litzake baña, txarrazka asko dauz gibelian. Zelango «kataklismo» ikeragarria izan biarko zan aitz-ori orrelan ebagiteko? Benetan da andia Jaun-Goikuak daukon ala (poder).

Beste ikuzgarririk'be ba'dau mendi onek, baña beren loitasunak eta bertan go-gozala artu genduban bustaldiak, eztalpe-barik, pizkabat itunduta eta kikilduta geratu leuzkun.

Gipuzko-aldera begiratu ezketiño. itxasbazter eta beren inguruan doguzan mendi-asko ikustendu, baña Ego-aldera begitu-ta Oiz-mendiraño bakarrik berak eztaiduzten dauzkulako dana, ortik alderdi-orrelatik. Beste ainbeste esan gintzake Sarkaldetik, Bermeo-ganan dagozan Sollube ta Burgoa'raño bakarrik ikusi gintzake. Ipar- aldera, itxaso zabala, besterik-ez.

Ogoño'ganan ezker-aldera dago Leunbe-ko Atxa eta beren ganean lenago izan zan ikustoki (observatorio) egiten eban arri-mordoa eta, eskumarago Motxa aitzmuzturra ta abar, baña, guk ikusirik egualdiak ipiñiten eban arpegi itsusia, etxerantz-ako, bidea artu genduban, gorantza-kua, bera, bustaldi ederra artuta... baña ez ondartzean nai-geban lez, mendigañean baño.